BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

5710

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 3koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez publikotasuna ematen baitzaio Emaitek Plus laguntza-programarako 2019ko ekitaldiko deialdia finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak handitzeari.

Lehenengoa.– Ekonomiaren Garapeneko eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko irailaren 16ko Aginduaren bitartez (2015eko urriaren 7ko EHAA, 191. zk.) arautzen da Emaitek Plus laguntza-programa. Agindu hori Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko uztailaren 27ko Aginduak (2017ko abuztuaren 18ko EHAA, 157. zk.) eta 2019ko uztailaren 18ko Aginduak (2019ko abuztuaren 1eko EHAA, 145. zk.) aldatu dute.

Bigarrena.– Emaitek Plus programa agindu arautzailearen 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearen 2019ko irailaren 11ko Ebazpenaren bidez, 2019ko ekitaldirako laguntzetarako deialdi publikoa egin zen.

Hirugarrena.– Aipatutako ebazpenaren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, 61.260.000,00 euro bideratuko dira iragarritako laguntzak finantzatzeko, eta, agindu arautzailearen 2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, urteko deialdiko guztizko aurrekontu-zuzkidura bi zenbateko bereizitan banatuko da:

– Foku anitzeko teknologia-zentroentzat: 45.945.000,00 euro; kopuru hori, bestalde, honela zatituta:

● Emaitzetara bideratutako zentroaren modeloarekiko egokitzapen-gradua, 44.567.000,00 euro.

● 2020rako finkatutako adierazleen aginte-koadroaren helburuak lortzeko, zentroen jarduera-planak, 1.378.000,00 euro.

– Ikerketa kooperatiboko zentroentzat: 15.315.000,00 euro; kopuru hori, bestalde, honela zatituta:

● Emaitzetara bideratutako zentroaren modeloarekiko egokitzapen-gradua, 14.856.000,00 euro.

● 2020rako finkatutako adierazleen aginte-koadroaren helburuak lortzeko, zentroen jarduera-planak, 459.000,00 euro.

Beti 2019ko irailaren 11ko Ebazpenaren 2. artikulu horren arabera, eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan izanik, eta haiek ebatzi baino lehen, zenbateko horiek aldatu ahal izango dira, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren beste laguntza-programa batzuk exekutatu eta agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera, betiere. Aldaketarik izanez gero, Berrikuntza, Teknologia eta Lehiakortasuneko sailburuordeak ebazpena emango du, aurreko guztiaren berri emateko.

Horiek Emaitek Plus programa laguntzen 2019ko deialdia arautzen duen 2019ko irailaren 11ko Ebazpenaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Publikotasuna ematea Emaitek Plus laguntza-programarako 2019ko ekitaldiko deialdia finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak 4.000.000 euro handitzeari, xahutu gabe geratu diren aurrekontu baliabideen arabera. Deialdi hori Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearen 2019ko irailaren 11ko Ebazpenaren bidez argitaratu zen. Horrela, 65.260.000,00 eurokoak dira Emaitek Plus laguntza-programaren 2019ko ekitaldia finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak.

Agindu arautzailearen 2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, urteko deialdiko guztizko aurrekontu-zuzkidura bi zenbateko bereizitan banatuko da:

– Foku anitzeko teknologia-zentroentzat: 3.740.000,00 euro; kopuru hori, bestalde, honela zatituta:

● Emaitzetara bideratutako zentroaren modeloarekiko egokitzapen-gradua, 3.627.000,00 euro.

● 2020rako finkatutako adierazleen aginte-koadroaren helburuak lortzeko, zentroen jarduera-planak, 113.000,00 euro.

– Ikerketa kooperatiboko zentroentzat: 260.000,00 euro; kopuru hori, bestalde, honela zatituta:

● Emaitzetara bideratutako zentroaren modeloarekiko egokitzapen-gradua, 252.000,00 euro.

● 2020rako finkatutako adierazleen aginte-koadroaren helburuak lortzeko, zentroen jarduera-planak, 8.000,00 euro.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 3a.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.